

Olympus Aviation enpresaren kanal garrantzitsuenak komunikazio kanalak dira; izan ere bezeroekiko harremana oso pertsonalizatua eta estua izan beharko da gure produktua eros dezaten konbentzitzeko. Komunikazio kanal horiek hiru dira:

Lehenengoa, enpresaren web orrialdea. Hau teknikari kualifikatuek eramango dute eta orrialdearen informazio guztiaz eta estetikaz arduratuko dira. Web-aren barruan hainbat atal aurkitu daitezke enpresaren inguruan: nola sortu zenaren informazioa, nortzuk garenaren informazioa, gure eskaintzak zeintzuk diren eta non lortu ditzakegunaren informazioa, gure zerbitzuak zeintzuk diren, gure balorezko proposamena zein den eta gure funtsezko elkarteak zeintzuk diren agertuko dira. Horrez gain, simuladore bat ere hor txertatuta egongo da, produktuak nola funtzionatzen duen erakusteko.

Telefonoa ere kanal garrantzitsuenetarikoa izango da. Gure bezeroak edo gure produktuan interesatuta dauden enpresak horren bidez kontaktuan jartzeko modurik zuzenena izango baita. Gainera, bezeroak produktuarekin arazoak badituzte kontaktatzeko modua izango da gure zerbitzu teknikoaren parte garrantzitsuenetarikoa delarik. Alokaturako lokalean bi langile edukiko ditugu harrera lanetan. Hauek bisitak gidatu, bezeroak orientatu edota oinarritzko galderak erantzuteaz gain, telefonoa hartzen ere egongo dira eta beharrezko adituarenera bideratuko dute telefono dei hori.

Posta elektronikoari dagokionez bezeroak telefonoaren antzera erabili ahal izango dute. Honen bidez bezeroa galdera luzatu beharreko pertsona horrekin jarri ahal izango da zuzenean, edota galdera orokorra baldin bada enpresako posta elektronikora bidali ahal izango du.